

Atxagaren "Behi euskaldun baten memoriak" komikira ekarri dute!

1991n argitaratu emandako eleberria, komiki formatuan irakurgai da dagoeneko. Ez da kontakizun berdina baina bera da. Bera bertsiatu bat: 1936ko Gerra baino pixka bat beranduago jaiotako Mo behiaren istorioaren aldaera bat. Hala adierazi du Atxagak berak *Berria* egunkarian: "Ez da kontatua berbera, da bertsiatu bat. Eta bertsiatu esaten dut, musikaren zentzuan. Zuk entzun dezakezu *Summertime* modu orkestralean, edo entzun dezakezu gitarra soil batekin, eta kanta bera da, baina bertsiatu bakoitzak ematen dio beste inguru bat. Eta, kasu honetan, nik esango nuke liburu hau orkestralagoa dela". 28 egunetan eta eskuz idatzi zuen Atxagak duela 30 urte baino gehiago. Komikira ekarri duten artistek 28 buelta baino gehiago eman behar izan dizkiote kontakizunari, lengoia honetara ekartzeko.

MO. Behi euskaldun baten memoriak
Juan Suárez eta Pello Varela.
Pamiela, 2024
978-84-91723-87-5
Nobela grafikoa
+12

Bere bila etorri zirenean inork ez zuen defendatu

Gutxinaka-gutxinaka bakarrik gelditu da eraikinean 4. solairuko bizilaguna. Beste guztien bila etorri direnean, isilik gelditu zen salbu sentitzen zelako. Azken bisitan ordea, bila etorri zitzaizkion eta ez zen inor gelditzen bera babesteko.



On va a questa gent?
Fran Parreño.
Animallibres, 2021
978-84-18592-41-6
Albuma
+12




Sarkofagoak dirudite baina pertsonak dira

Largabistarekin txalaputik eroritako zazpi pertsona ikusi ditu. Faraoiaren sarkofagoak dirudite, baina naufragoa dira itsasoan, olatuetan noraezean dabilzanak. Ferozaina itsasoko txipiroi erraldoi baten esperoan zegoen, kostaldeko urre koloredun tantoek bere arreta guztia hartu dutenean.


Itsasoa bete urre
Dani Martirena eta Ana Ibañez.
Txalaparta, 2024
978-84-10246-27-0
Albuma
+12

Itoizko urtegiak azpian utzitako herrietako bat azalera ekarri dio Iratiri irrati esatariak gaur goizean

Amarekin duen isiltasun-hari ez adostuari hitzak jartzeko aukera paregabea eskaini dio, konturatu gabe, irrati esatariak Iratiri. Esataria entzun eta berehala, parada ezin hobea dela sinetsi, eta gelditu ezin den uraren bidea segitzeko hautua egin du. Datozen egunetan murmur horrek nora eramango dituen jakingo dugu. Isiltasunarekin estali nahi izan badu ere, bertatik alde egin behar izana ezin izan du urperatu. Alaba jakiteko desioz dago aspaldi.




MURMUR
Ane Labaka eta Raquel Samitier.
Erein, 2024
978-84-91099-94-9
Albuma
+14



Gerran hiru gazte baino gehiago dituzten familiek, haietako bat etxeratzeko aukera izango dute

Gerraz libratzeko eta etxeratzeko aukera ematen duen lege berri honek eragina izan du Telleriatarrengan, beste zenbait familiengan izan duen lez. Gauzak horrela, gerratik nor libratu aukeratu beharko dute. Behin erabakita, Joxe aita abiatuko da haren bila. Lege berriak familia osoa mugiarazten du ordea, kide bakoitzari era batera edo bestera eragingo diolako bakar hura etxeratzeko.


Elur gorrituaren egunak
Amaia Telleria eta Laida Ruiz.
Denonartean, 2024
978-84-19529-32-9
Komikia
+14



Gerran parte hartzera derrigortu zaitzakete oraindik XXI. mendean

Ez da bakarria eta askorena izan zitekeen gerran derrigorrez parte hartu zuen Sebastian Salaberriaren biografia. Datuek diotenagatik, edonon eta edonoz gerta daitezke. Gertatu da. Gertatzen ari da. 36ko Gerrako autobiografia hau 1964an publikatu zen; 2024an berriro argitaratu da. Hain zuzen ere, gure egunerokoa irudi belikoek okupatu duten garaian.

Neronek tirako nizkin
Sebastián Salaberria eta Laura Freijo.
TZ argitaletxea, 2024
978-84-09-65419-2
Eleberria
+14



Beste bat, beste bat!!!

Minutu batez luzatu ziren "Beste bat, beste bat..." oihuak Mejillon Tigrek eginitako azken *Hitz esana* saioa bukatzean. Hots, han bildutako guztiek poema gehiago eta gehiago esan zitzaizkion nahi zutela: "Beste bat eta beste bat eta beste bat". Gehiago nahi duten horientzat, erredakzioa itxi aurretik jakin dugu Mejillon Tigre taldearen *Spoken word* saioaren ondorengo fanzinean eskuragarri dagoela ohiko lekuetan.

Hitz esana
Mejillon Tigre kolektiboa, Ainara Beristain eta Cláudia Borrás.
Autoedizioa, 2024
Hitz esana. Fanzinea
+14



18 urterekin bizitako lehen sexu esperientziari buruz gogoetatu daitezke mende erdi geroago

Neska bati buruz idatzi du Annie Ernaux Nobel saridunak baina neska gehiagoren esperientzia ere izan zitekeen tonu autobiografikoan eta memoriaren gorazarretan idatzitako autofikzio lan hau. Askotan gertatu ohi da, eta idazleak berak aitortzen du "orain" iritsi dela ulertzera, "momentu hartan" gertaturikoa. Esperientzia da helduen begiradarekin eta helduentzat idatzitako obra hau gazteen proposamenetan sartzea. Adinari loturiko sailkapenekin jolastea da erronka. Obra honekin ez ezik, beste batzuekin ere probatu daitezke ea gazteek nola jasotzen dituzten.

Neska baten memoria
Annie Ernaux.
Itzul.: Aiora Jaka Irizar.
Igela, 2024
978-84-12684-93-3
Eleberria
+14

BESTELAKO BUSTIALDIAK

Bihartik aurrera artelanak ukitu daitezke

Azken berriek diotenaren arabera, aurrerantzean zenbait artistaren artelanak hurbiletik ikusteko, ukitzea eta eraldatzeko aukera izanen da. Arte zaleen harriidurarako, museoetako arau nagusia aldatu egingo da eta zera esan dute museoetako langileek: "Mesedez, ukitu artelanak".

Please touch the artwork 2
Garatzailea: Thomas Waterzooi, 2024
App Store (iOS) eta Google Play (Android)
+12

Soka bat agertu da pantailaren goialdetik zintzilik

Oraindik ezezaguna den fenomeno gertatu da azken egunotan. Pantailaren goialdean muturrean bola bat duen soka zintzilik agertu da. Soka horretatik tiratzen den bakoitzean, garai bateko interruptorea baillatzen, pantailan zerbaite gertatzen da. Fenomeno honekin lotutako edozein aurkikuntza helaraztea eskertuko genuke erredakzioan.

Il Filo Conduttore
Garatzaileak: Mario von Rickenbach eta Christian Etter, 2019
App Store (iOS) eta Google Play (Android)
+14

Galtzagorrik gona gorria jantzi du bosgarrenez

Galtzagorri elkarteak gona jantzi zuenetik, lau denboraldi egin ditu bere soinu abenturan murgildurik eta 2025ean bosgarrenari helduko. 8 atal berri bidean daude eta 32. plataforma guztietan entzungai. Jantzi ezazu gona eta entzun abentura honek dioena!

Gonagorri podcasta
Garatzaileak: Galtzagorri elkarteak
https://www.ibbygaltzagorri.eus/eu/gonagorri-podcast-a.
Spotify, Ivoox eta Baleafunk-en.
+12/helduak

Autopsia gela batean zenbait infiltratu topatu dituzte

4 eguneko autopsia gela batean infiltraturik egon diren zenbait pertsona topatu dituzte. Asier Apaolaza mediku forentsearen lantokian eman da gertakaria eta atxilotuek azken hilotzen azterketak audio bidez grabatu dituzte. Ausardia handia behar da grabazio horiek entzuteko.

De rigor mortis podcasta
Garatzaileak: ULLU Media, 2024
www.guau.eus/s/de-rigor-mortis
+14



Azken urteetan azala urdindurik iristen da herritar ugari opor egunetara

Herriko beste hainbat pertsonari bezala, azala urdintzen joan zaio. Ezer gutxi egin daitezke kolore horrek azala hartzen dizunean. Dermatologoek argi adierazi dute: askotariko arrazoiek sor dezaketen kolore urdin hori sendatzeko bide bakarria oporrak hartzea da.

Vacation
Lee myoung ae.
Kidari Books, 2021
979-11-5785-498-1
Hitzik gabeko albuma
+14



Munduari bira emateko, Fogg-ek baino 8 egun gutxiago behar izan zituen Nelly Bly kazetari estatubatuarrek


72 egun, sei ordu eta hamaika minutu. Hori da, 1889an, Nelly Bly behar izan zuen denbora New York-New York egiteko. Hori eta soineko bat. Julio Vernek berak gutxietsi zuen Bly, kazetari estatubatuarrek Phileas Fogg bere pertsonaiaren urratsak jarraituko zituela kontatu zionean. Konfiantza gutxi erakutsi bazion ere, Nelly Bly zalantza egin barik aurrera egin zuen bere helburuarekin.

72 egun eta soineko bat
Pep Molist eta Ina Hristova.
Itzul.: Itziar Diez de Ultzurrun.
A Fin de Cuentos, 2024
978-84-19684-18-9
Albuma
+12

Laminen urrezko orrazia nork lapurtu duen jakin gabe jarraitzen dute gazteluan

Martin Martina eta lagunak jo eta su ari dira gazteluko pasabide ezkutuetatik zehar misterioa argitu nahian. Egunez egun, misterio horri askotariko enigmak eta ezkutuko kontu ugari gehitzen zaizkio eta horiek ere aztertzen dabilta. Institutuko zuzendariak aitona-amonen gazteluan uda pasatzera zigortu zuenean, inork gutxi espero zuen gazteluko egonaldiak hainbestera emango zuenik. Aztikeriaz eta mamuez beteriko egunak izaten ari dira.


Martin Martina eta urrezko orraziaren misterioa
Amancay Gaztañaga.
Elkar, 2024
978-84-1360-393-3
Eleberria
+12



Kasu! Zentzugabeko umore ingelesak kutsatu du euskarazko liburu hau!

Erdia ingelesez, erdia euskaraz, goitik behera, edo ezkerretik eskuinera, nonsense edo zentzugabeko umoreak okupatu ditu orrialde guzti-guztiak. Ezkerreko orrialdeetan limerickak ingelesez; eta eskumakoetan limerick horiek berak daude Juan Kruz Igerabidek euskarara ekarrita. Limerick delakoa zer den? Irlandako herri baten izena izateaz gain, bertsokera bati emaniko izena ere bada. Ikerketa bati esker jakin badakigu euskaraz ere badirela haien agerpen batzuk.

Non sense liburua
Edward Lear.
Itzul.: Juan Kruz Igerabide.
Denonartean, 2024
978-84-19529-51-0
Limerick-ak
+12





Afrikako iparraldetik etorritako zirkuak emanaldi bakarra eskaini zuen Lodosan

Jatorriz italiarrak izan arren, Afrikako iparraldetik sartu zen penintsulan gora zirku konpainia. Emanaldi bakarra egin zuen Lodosan, 1936ko Gerrak eztanda egin, eta ia kide guztiak fusilatu zituztelako.

Garaiko egunkarietako kronikek diote oso kide gutxi biziraun zutela; baita zirkuak animalia gutxi batzuk ere, besteak beste, zamalanak besterik egiten ez zituen elefante batek. Emanaldi bakar hori ikusi zuen lekuko bat agertu da. Elefanteari buruz asko daki eta kontatu egin digu.

Anastasini Zirkua
Miren Amuriza eta Malen Amenabar.
Denonartean, 2024
978-84-19529-34-3
Albuma
+12



Bizitzan ez itozteko plana osatu du gazteen tripartitoak


Arrazismoa, gurasoen frustrazioen zama, edertasun eta neurri kanonak, familiakoen zaintza, mito beidurgarriak... eta mundu zitalaren gaitz guztiak sortzen duten itolarriari aurre egiteko hirukotea osatu dute hiru gaztek: Youssef, Euskolabelek eta Barraskilok. Haien eguneroko bizitzaz jakin ahal izan dugunari erreparatuta, ezinbesteko aliantza dirudi Tripartitoak. Izan ere, Tripartitoaren kide den Barraskiloren hitzetan, "klak egitea krak ez egiteko" ia ezinbesteko dute, inguratzan dituen testuinguruak ez baitaie tarte handirik ematen.

Egunen akabera
Garazi Albizua.
Erein, 2024
978-84-91099-73-4
Eleberria
+12

"Detaile xumea" deitu zioten egundoko krimenari

Israeigo Estatu sortu berriko soldaduek emakume arabiar bat bahitu, bortxatu eta hil zuten 1949an, Israelek hegoaldean Egiptorekin duen muga "zaintzen" ari zirenean. Urteak pasatu dira eta oraintxe izan du Ramallahn bizi den emakume batek "Detaile xumea" izendaturiko basakeria horren berri. Dioenagatik, ez du amore emango israeldar soldaduek "detaile xumea" deituriko krimen hura erabat ikertu arte.


Detaile xume bat
Adania Shibli.
Itzul.: Aitor Blanco.
Igela, 2024
978-84-12684-95-7
Eleberria
+12



Haserre desegin gabe hil dira, Old Martinen gaztetako bi lagunak

Oso denbora gutxian gutun bi jaso ditu Euskal Herritik gaztetan Ameriketara joandako Old Martinek. Obabatik (Euskal Herria) heldu zaizkion gutunetan, gazte denboratik ikusten ez dituen bi lagunak hil direla helarazi diote. Espero zitekeenaren kontra, berriak ez zaizkio ez batera, ez elkarrekin iritsi, ez. Karril desberdinetatik ailegatu zaizkio Ameriketara. Lagunen arteko harremana ez zela sendatu erakusten duen pista honek tripak mugiarazi dizkio Old Martini. Konpondu gabeko haserre horren jatorria eta arduraduna bera izan zitekeela konturatu eta argialdi horren ondorioz memoria egiten hasi da.

Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian
Bernardo Atxaga eta Malen Amenabar.
Erein, 2024
978-84-9109-862-1
Eleberria
+12



- 1 72 egun eta soineko bat
- 2 Martin Martina eta urrezko orraziaren misterioa
- 3 Non sense liburua
- 4 Anastasini Zirkua
- 5 Egunen akabera
- 6 Detaile xume bat
- 7 Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian
- 8 MO. Behi euskaldun baten memoria
- 9 On va aquesta gent?
- 10 Itsasoa bete urre
- 11 MURMUR
- 12 Elur gorrituaren egunak
- 13 Neronek tirako nizkin
- 14 Hitz esana
- 15 Neska baten memoria
- 16 Vacat'ion

Liburu gida, edo errealtateari fidela izateko, liburuak informazio iturritzat hartu dituen albiste-ori hau esku artera iritsi bazaizu, GALTZAGORRI elkarteak 2018tik martxan dituen Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegietan parte hartu duen irakase edo bibliotekaria zarelako da. Edo, baita Euskal Haur eta Gazte Literaturaren marea biziak tentatu duen ingierari gaztea izatea. Nolanahi den, 2025ean ere eskolako bitartekariaren begiak zorrotzen ahaleginduko gara: ikasleak irakurketara zaletzeko ballabideak eta estrategiak gerturatu dizkizuegu beste behin. Liburuez hitz egiteko modu asko daude eta gu liburuen itsasoan urperatu eta kazetari jolasera jolastu gara berripaper honetan. Gure albisteak ez daude beti errealtateari hertsiki lotuak: liburuak eta liburuen gaiak bihurtu ditugu ikerketa berrizaleen helburu, erakusketak antolatzeko aitzakia, inoiz argitaratu ez diren primizia, galdutakoak aurkitzeko iragarri, lege berrien iragarri, kontzentrazio deialdi... Zipriztindu ditugu literatur kalitatearen galbahea pasa duten Euskal Haur eta Gazte Literaturaren argitaratu berriak diren hainbat izenburu. Nazioarteko hitzik gabeko aleak ere topatuko dituzu, baita bestelako fikzioen tantak ere. Jolasteko ideiez betetako irakurgaiak albigitegi hau zure tranpolina izatea nahi genuke. Zure burua liburuen itsaso honetara botatzera ausartzen bazara, hurbil dituzun haur eta gazteak zipriztintzera iritsiko zarelako.

Adi, prest,... egin salto!

[www.ibbygaltzagorri.eu](https://www.ibbygaltzagorri.eu/eu/formazioa/irakasleentzako-lantegiak)
<https://www.ibbygaltzagorri.eu/eu/formazioa/irakasleentzako-lantegiak>

Donostia, 2025eko martxo
© Testuak: Sara Bikandi, Mireia Delgado eta Izaskun Jauregi.
© Irudiak, diseinua eta maketak: Lorena Martinez.
Software librearekin ilustratua eta maketatua.
© Argitaratzailea: Galtzagorri elkarteak.
galtzagorri@bygaltzagorri.eu
Inprimaketa: Itxaropena S. A.
L.G.: D 239-2025



Gazteak liburuz bustitzeko eginak

2025

IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO IRAKASLEENTZAKO LANTEGIAK